

GOI-NAFARRERA ARKAIKO ETA ZAHARRA: AZTERKETA ETA TESTUAK

Tesiaren egilea: Urtzi Reguero Ugarte

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Tesi-zuzendaria: Ricardo Gómez López

Tesiaren laburpena:

Tesi honek bi zutabe nagusi izan ditu: filologia eta dialektologia diakronikoa. Hori dela-eta, 1750. urte aurretik idatzi ziren goi- nafarrerazko lekukotasun ezagun guztiak jasotzen eta editatzen dira. Bi helburu nagusi ditu ikerlan honek: batetik, filologiaren lan-tresnak erabiliz testuen edizio fidagarriak eskaintzea eta bertako euskara aztertzea; bestetik, testuek erakusten dituzten ezaugarriak kontuan harturik, dialektoaren bilakabidea ezagutzea.

Bide horri ekiteko, lehenengo kapituluan, ikerketan ardatz izan diren oinarri metodologikoak finkatzen dira, dialektologia diakronikoa eta filologia uztartuz. Halaber, testuak direnez informazio-iturri nagusiak, horien fidagarritasunaz hitz egiten da. Hori dela-eta, fidagarritasun-eskala bat proposatu da testuen izaera kontuan hartuta. Ondoren, aurreko ikertzaileen proposamen eta ondorioak laburbildu dira: Bonaparte, Caro Baroja, Pagola, Zuazo eta Camino. Kapituluaren azken hiru atalek goi-nafarrera arkaiko eta zaharra diakronikoki aztertzearen garrantziaz dihardute, eta horretarako dugun corpora aurkezten da, mapen laguntzaz.

Bigarren kapituluan, 1750 aurretik goi-nafarreraz idatzitako lekukotasun ezagun guztiak bildu dira, hiru multzo bereizirik: lehen multzoan lekukotasun laburrak daude, hala nola esaldiak, ezkontza-fedeak eta bertsoak; bigarren multzoan testu luzexeagoak sartu ditugu, besteak beste sermoiak eta gutunak; amaitzeko, lekukotasun luzeak jaso ditugu hirugarrenean. Azken multzo horretan daude Beriainen bi liburuak eta Elizalderen kristau-dotrina. Bigarren kapituluan editatutako lekukotasun guztiak aurkezpen bat dute, eta bertan zenbait datu ematen dira: egilea nor den, lekukotasuna non dagoen, testuak aurretik dituen edizioak eta azterketak zein diren, etab. Testu guztiak hizkuntza-azterketa bana dute edizioaren ondoren.

Hain zuzen ere, hizkuntza-azterketa horietan oinarriturik egin da hirugarren atala, zeinetan goi-nafarrera arkaiko eta zaharrean agertzen diren ezaugarri fonologiko, morfologiko, sintaktiko eta lexikoak aztertu baitira. Bertatik ateratzen den ondorio nagusia da lehen lekukotasunak agertzerako badirela goi-nafarreraren ezaugarriak, baina denborak aurrera egin ahala areagotu egiten direla ezaugarri horiek. Orobat iparraldeko eta hegoaldeko goi-nafarreraz. XVII. menderako bi azpidialektoak badirela ikus daiteke, baina bien arteko aldea beranduago handitzen da.

Azterketa horretako datuak eta ondorioak baliatu dira laugarren kapitulua osatzeko. Bertan, goi-nafarreraren sailkapenaz jardutean, ezaugarri batzuk begiratzen dira, Iruñea foku noiztik noiz arte izan zen ondorioztatu nahian. Hori horrela izanik, inoiz —lekukotasunak agertu aurretik—, Nafarroako hiriburua foku berritzaile garrantzitsua izan zela erakutsi dugu. Dena den, ikusten da iraganean zeukan indarra galdu zuela denborak aurrera egin ahala. Hori azaltzeko arrazoi historiko eta soziolinguistiko batzuk aurkeztu dira. Kapituluaren bukaeran, goi-nafarreraren periodizazio bat aurkezten da.